

Araba Erdialdeko eremu funtzionaleko Lurralde-Plan Partzialaren Berrikuspena



Ezquiaga
Arquitectura,
Sociedad y
Territorio S.L.®

Ezquiaga. Arquitectura, Sociedad y Territorio S.L.

-

Herritarren Partaidetzarako Programa idatzi duen taldea:

Thais Ibarondo [cAnicca. Arquitectura, Diseño y Urbanismo]

Carlos Muñoz [cAnicca. Arquitectura, Diseño y Urbanismo]

Ainhoa Ezquiaga [Ezquiaga. Arquitectura, Sociedad y Territorio]

-

2021

Herritarren Parte-hartze Programa

*Araba Erdialdeko eremu funtzionaleko
Lurralde-Plan Partzialaren Berrikuspena*



AURKIBIDEA

orr.

1. Ikuspegi orokorra eta helburuak	6
1.1. Parte-hartzearen garrantzia Lurralde-mailan	6
1.2. Parte-hartze prozesuak Covid garaian	7
1.3. Parte-hartze eraginkorra lortzeko irizpideak	8
1.4. Helburuak eta baloreak	10
2. Lan-esparrua	12
3. Metodologia	12
3.1. Ikuspuntu Orokorra	14
3.1.1. Parte-hartzea jarraitzea	14
3.1.2. Helburuak edo kanalak	15
3.2. Parte-hartzeko mekanismoak	16
3.2.1. Ekintza motaren arabera	14
3.2.2. Parte-hartzearen rola arabera	15
3.2.3. Eragileen mapa	20
3.3. Online parte-hartzea errazteko tresna digitalak	22
3.4. Euskaraz parte-hartzea erraztea	26
4. Prozesuaren egitura	28
4.1. Prestatze-lanak	28
4.2. Jendearen partaidetza	28
4.3. Ondorioak eta emaitzak	28
5. Denbora-eskema	30
6. Ekintzen deskribapena	32
7. Komunikazioaren garrantzia	56

1. Ikuspegi orokorra eta helburuak

1.1. Parte-hartzearen garrantzia Lurralde-mailan

Pertsonen funtsezko premiak eta batekotasun handiagoko gizartearen antolakuntza esperientzien eta modalitateen baliua islatzen ditu ikuspegi parte-hartzaileak. Lurralde plangintza eta kudeaketa partekatua eta eraginkorrak lor daitezke esku hartu duten pertsona guztiek erakutsitako inplikazioa mailarekin, hainbat mailetan arituz, lurraldea modu jasangarrian garatzeko erabakigarriak direnak.

Lurralde Plan Partzialak herritarren parte-hartzea eta gardentasuna bermatu beharko ditu, maila anitzeko gobernantza lagundu beharko du lurralde-plangintzako prozesuetan zein hirigintza kudeatzeko prozesu esanguratsuenetan. Hirigintza-araudiak partaidetza onartzen du, baina herritarrek lurraldeen kudeaketaren inguruko kontuetan parte hartzeko benetako kulturaren elkarorkuntza azpimarratu behar da.

Hainbat arrazoi daude herritarrek plangintzan parte hartzeko beharra eta aukera arazoitzen dituztenak. Garrantzitsuena honetan datza: herritarrek gobernu-sistema demokratikotan partekatzen duten eskubidean politika publikoko kontu guztietan eta plangintzan euren ahotsa adierazteko.

Gainera, badaude plangintzaren bideragarritasunean eta kalitatean eragin zuzena duten onurak:

- Lurralde baten herritarrak informazio-iturri ordezkazina dira esperientzia zuzenaren emaitza dena eta plangintzaz arduratzen diren Administrazioek kontuan hartu behar dutena. Jendearen ideiak sartzeak plangintza aberasten du eta sarritan kalitate teknikoa hobetzen du.

- Parte-hartzeak, plangintza burutzeko prozesuan zehar, modu argian murrizten du gatazkak egoteko aukera planak onartu ondoren; hortaz, bere iraupena eta egonkortasuna laguntzen du. Zentzu horretan, dedikazioaz, denboraz eta kostu ekonomikoaz bezainbatean, parte-hartzeari eskainitako esfortzua probetxugarria da epe ertainera eta luzera.

- Partaidetzak jendearen konfiantza indartzen du plangintzaz arduratzen diren Administrazioengan. Era berean, hezkuntza prozesua da bi zentzutatik: parte-hartzeak herritarrak hezten ditu euren komunitatearen arazoengatik inguruan eta plangintzak modu fidagarrian horiek konpontzeko duen gaitasunaren inguruan. Gainera, gobernu-estilo aldaketa sustatzen du; gobernu irekiagoa, arduratsuagoa eta eraginkorragoa lortzen du.

- Halaber, herritarren parte-hartzeak komunitate sentimendua eta plangintzaren zati izatearen sentimendua indartzen ditu. Parte-hartze aktiboak dakarren lankidetzako esperientziak herritarren eta Administrazioaren arteko lana sustatzen du; beraz, plangintzarako tresnekiko eta gauzatzearekiko poza handitzen du.

- Azkenik, herritarren parte-hartzea garrantzitsua da hirigintza-legeak indartzeko, euren lurraldearen erabakiekiko konprometitu dauden herritarrak berme onena baitira legedia zein plangintzaren zehaztapenak ondo ezartzeko.

1.2. Parte-hartze prozesuak Covid garaian

Mundu-mailako pandemiaren eta mugikortasuneko murrizketen egungo testuinguruan, teknologia berriek eta monitorizatzeko tresna digitalek eragin are handiagoa izango dute partaidetzan eta gobernantzan.

LPParen elaborazioak herritarrek parte hartzeko ohiko mekanismoek sortzen dituzten ezagutza- eta proposamen-emariaz baliatu behar du, haiekin komunikazio iraunkorra ezarri behar du eta, behar izatekotan, espazioren bat sortu zeinean herritarrek aukera izan Araba Erdialdeko Eremu Funtzionaleko Lurralde-Plan Partzialaren jarraipen espezi-fikoa egiteko.

“Hirigintzaren erronkak Covid garaian” tailerra, distantzia- eta edukiera-murrizketak zein musukoak erabiltzeko neurriak betez garatua. Tafalla (Nafarroa). 2020. Iturria: cAnicca.

Euskadiko Parte Hartzeari buruzko Liburu Zuria erreferentziatzat hartuta, partaidetza- ren hiru dimentsio ezarri ziren: prozesua, eskubidea eta betebeharra, eta jarrera:

- Herritarren parte-hartzea ikaskuntza-prozesua da, baita bakarkako zein taldeko garapen-prozesua ere. Bere asmoa zera da: harremanak, erantzunak, ekintzak, etab. eraldatzea; pertsona guztiei lekua eta ahotsa eskaintzea euren erantzukizuna eta balio publikoaren sorkuntzan eragiteko gaitasuna burutu ditzaten.

- Parte-hartzea pertsona guztien eskubidea da, eurengan eragina duten ekintzetan eta erabaki publikotan alderdi aktiboa izateko, baina herritarren betebeharra da ere, betiere borondatezkoa eta desiratua izan behar den arren.

- Jarrera gisa, parte-hartzeak autonomia, askatasuna eta erantzukizuna dakar. Konponbidearen partaide izateko interesa behar du eta; hortaz, ez izatekotan, norbaitek parte hartu nahi ez izatea onartu beharko litzateke.



“Hirigintzaren erronkak Covid garaian” tailerra, distantzia- eta edukiera-murrizketak zein musukoak erabiltzeko neurriak betez garatua. Tafalla (Nafarroa). 2020. Iturria: cAnicca.

Parte-hartze prozesua mundu digitalaren aukeretara moldatzeak lurraldea beste modu batean irakurtzea ahalbidetzen du eta; beraz, antzeko ezaugarriak dituzten baina geografikoki aldenduak dauden udalerrien partaidetza bateratua eta aldiberekoa ahalbidetzen du. Horrela, landa-eremuen eta hiriguneen arteko aldearen dibertsitateari erreparatuz, lan digitalari esker gune horiek lotu daitezke Araba Erdialdean duten kokapen geografikoa zein izanda ere.

1.3. Parte-hartze eraginkorra lortzeko irizpideak

Aurreko gogoeten arabera, LPPa berrikus-tean ondorengo irizpideak kontuan hartu behar dira herritarren parte-hartze prozesu eraginkorra burutzeko.

1. Eremuan, plangintzaren arloan, aurretik burututako parte-hartze prozesurekin adostasunean lan egitea eta horiez baliatzea, adibidez, LAGak berrikusteko egin berri den lana. Horrek prozesuari koherentzia eman-go dio eta dauden zimendu batzuen gainean eraikitzea ahalbidetuko du.

2. Plangintza estrategikoa burutzean, herritarren parte-hartze prozesuaren exijentzia-mailan aurrerapen kualitatiboa sustatzea, informaziorako zein kontsultarako, negoziaziorako eta erabakiak hartzean parte hartzeko eskubidea bermatzen.

3. Elaborazio prozesuan argi bereiztea jabetunen zein interesdunen posizioa eta herritarrena orokorrean, horrela, ekimen pribatuaren eskubidea hertsiki baztertuko da herritarren parte-hartzetik.

4. Maila nazionaleko edo eskualde-mailako parte-hartze prozesuei buruzko Jarraibideak edo Jardunbide Egokien Gidak erabiltzea, loteslea ez den izaera duten arren, herritarren eta administrazioaren kultura hobetzen dutenak teknikoei eta parte hartzeko prozedurei dagokienez, baita hiri-plangintzaren normalizazio dokumentalari dagokionez ere.

5. Informaziorako eskubidea onartzea eta erraztea, jabetunen eta herritar orokorren behar zehatzak bereizten. Azken horiek barne-koherentzia, irakurgarritasuna dituzten baldintzak eskatzen dituzte, baita plangintzaren dokumentuak ulertzeko erraztasuna ere, oso gutxitan asetzen dena modu egokian. Kasu honetan funtsezkoa da dagoen hizkuntza dibertsitatea onartzea eta zain-tzea.

6. LPPa idazteko prozesuan zehar behatokiak eta adostasun sozialerako foroak sortzen direla erraztea, gizarte zibilaren ikuspengien eta interesen aberastasuna irudikatzen dituztenak.

7. Dokumentua idazteko prozesura kontsulta-teknikak eta herritarren aldeko erantzun aktiboa sustatzeko teknikak gehitzea, “audientzia indiskriminatutik” at heltzeko plangintza prestatzeko prozesuan zehar berrelikatutako galdeketa-programa baten bidez.

Informaziorako eta parte hartzeko funtsezko eskubideaz bezainbatean:

1. Herritarren parte hartzeko eskubidea onartzea eta Herri-Administrazioek hori gauzatzeko erabili behar dituzten baliabideak zehaztea.

Plangintza estrategikoaz arduratzen diren Administrazioek, proposamenen ezagutza publikoa bermatzeaz gain, ezagutzera eman behar dute herritarrek aktiboki parte hartzeko eskubidea dutela horiek burutzeko eta onartzeko prozesuetan; herritar guztiek iradokizunak, hautabideak eta arrazoibideak gehitzeko zentzuzko aukera izatea bermatu behar dute, baita administrazioak euren proposamenak kontuan hartzen dituztela eta horiek onartzearen edo gaitzestearen inguruko banakako erantzun arrazoitua jasotzen dutela ere.

2. Hirigintzaren inguruko informazio osora heltzeko eskubidea intimitate-bermearekin, bai estrategia-, plangintza- eta kudeaketa-tresnetara bai informazio-dokumentutara eta plangintza laguntzeko datu-basetara zabaltzen dena.

3. Ekintza publikorako eskubidea zabaltzea, legedia eta estrategia- zein lurralde-plangintzako tresnak betetzera zabaltzeaz gain, legedian eta dokumentuetan adierazitako zehaztapenen, printzipioen eta irizpideen arteko koherentzia eskatzeko ekintzara ere zabaltzen dena.

Adostasunerako tresnez bezainbatean:

1. Plangintza estrategikoaren aurretik doan negoziazio administratiboko jardunbidea legedira gehitzea, parte-hartze eta adostasun printzipiopean, lurraldean eragina duten eskumenak partekatzen dituzten Administrazioen arteko harremanen berri eman behar duena.

a. Lurralde antolamenduan, hirigintzan, ingurunean edo sektoreen araberako eskumenak dituzten Herri-Administrazioek euren ekintzak eta, bereziki, tresnak, zeinetan politika horiek formalizatu, itundu beharko dituzte.

b. Euren eskumenen arloan ere, plangintza burutzeaz arduratzen diren Administrazioek lor dezaketen lankidetzara eta laguntza eskainiko dute euren egitekoa hobeto burutzeko.

c. Lankidetzarako betebeharrak honakoa dakar berekin:

i. LPPa egiteaz arduratzen den Administrazioaren organotara euren eskumenak burutzean garatzen duten ekintzari buruz behar duten informazioa erraztea.

ii. Administrazio arduradunen eskumenak bateratzea euren artean eta gainerako Administrazioen hirigintza-antolakuntzarako edo lurraldean eragina duten eskumenen artean.

Barneko egonkortasuna eta koherentzia ziurtatzeaz bezainbatean:

1. Memoriaren garrantzia sustatzea, printzipioen eta proposamen estrategiko zehatzen arteko barne-koherentzia bermatzeko tresna gisa, ekintza publikorako eskubidearen arabera arituz, memorian adierazitako zehaztapenen, printzipioen eta helburuen arteko koherentzia izateko eskakizunari erantzutea.

Horrekin guztiarekin, LPPa egitean zehaztasuna handitzea bilatzen da, Lurralde-mailako zehaztapen estrategikoetan bere integrazio operatiboa sustatzea eta, legedian edo plangintzen Memoretan bertan adierazitako

printzipio orokorreari dagokienez, plangintza-
ren zehaztapen zehatzen desbideratzeak
kontrolatzeko herritarren tresna eta tresna
jurisdikzionala erraztea.

2. Hizkera teknikoa moldatzeko ariketa egi-
tea. Asmoa da tresna bat eskaintzea, aditua
ez den publikoak plangintza-dokumentuak
ulertzea errazten duena eta modu argian eta
intuitiboan erakusten dituen lurraldearen
hirigintza-, ingurune-, ekonomia- eta gizar-
te-garapenaren aspektu kritikoak.

1.4. Helburuak eta baloreak

1. Herritarrak etorkizun hobea imajinatzeko
aukeraren partedun egitea. Plangintzarako
dokumentuak idaztean dagoen esperientzia-
ri esker zenbait tresna diseinatzeko beharra
adierazi daiteke, zeinek proposamenak eza-
rritako epean jarraitasuna dutela bermatzen
duten. Hitz batez, ekidin nahi dena zera da:
prozesuaren emaitza izapide burokratikoaren
segida batera eta bete beharreko asmoen
eta helburuen deklarazioa biltzen duen
dokumentu batera mugatzea.

2. Parte-hartze barneratzailea, bereiztua eta
hezitzailea: herritarren kultura eratzea. Pro-
posatutako ereduak talde sozial eta erakun-
deak partaide egiten saiatzen du, alde eko-
nomikoak eta kulturalak zein adinekoak alde
batera utzita; hizketakide bakoitzarentzat
espazio zehatzak zehazten ditu, aurrez au-
rreko zein online tresnak nahasten ditu; eta
parte-hartzearen pedagogia jarraitua sustat-
zen du zenbait ekintzen bidez.

3. Erabakiak hartzeko eta parte hartzeko
espazioetatik baztertu diren taldeei ahotsa
ematea. Erabilitako parte-hartze prozesua-
ren asmoa da zenbait taldeen inplikazioa bi-
latzea, orokorrean erabakiak hartzearen er-
dialdean ez daudenak: hirugarren adina eta,
bereziki, haurrak eta gazteak. Ondorengo
belaunaldiei elkarlanaren eta diziplinarteko
lanaren garrantzia erakutsi behar zaie. Era
berean, aukera eman behar zaie euren etor-
kizuna ezagutzeko eta modelatzeko, beren
hiriarentzat beharrezkoak diren ekintza eral-
datzaileei dagokienez.

4. Sortutako ideien kapitalaz baliatzea.
Parte-hartze prozesuen emaitza ondorioen
laburpen-dokumentuak idazteko erabiliko
da eta proiektua fase bakoitzean burutzeko
input baliagarrien multzoa eratuko du.

Helburuak



Jakinarazi

Audientzia desberdinen interesa erakartzea, ikusgarritasuna eta eztabaida sortzea, tokiko hedabideak eta hedabide globalak inplikatzeko, eta abian den birsorkuntza-prozesuaren presentzia eta irudi publikoa eraikitzea.

Aktibatu

Partaidetzaren alderdia bultzatzea, gizartea eta erakundeak helburu komun baterantz bultzatuz.

Esperimentatu

Parte hartzeko metodologiak eta formatuak, proposamena eta etorkizuneko balizko gatazkak eta aukera oparoenak aztertzea.

Biltzea eta dokumentatzea

Jardueretatik sortzen diren ideiak. Herritarrei protagonismoa emanez eta aurkeztutako eta eztabaidatutako proposamenei ikusgarritasuna emanez.

Baloreak



Inklusibotasuna

Partaidetza ekitatiboa bermatzea eta desberdintasuna errespetatzea eta balioestea eskatzen du, pertsona guztien duintasuna eta herritartasun aktiboa sustatuz. Pertsonen askotariko gaitasunak eta gaitasun aberasgarriak hartu behar dira kontuan.

Gardentasuna

Informazio publikoa eskuratzeko eta erabaki politikoak hartzean parte hartzeko eskubidean oinarritzen da. Prozesua eta informazioa eskuragarriak, egiazkoak eta ulergarriak izango dira, udal-gobernantzan konfiantza eta segurtasuna sortzeko.

Lankidetza

Ideia, balio eta proiektu partekatu berriak eraikitzeko helburuarekin. Konfiantzan oinarritutako lankidetza horrek hainbat ikuspegi bilduko ditu lankidetza-lotura egonkor eta eraginkorra aurkitzeko.

Berrikuntza

Banakako eta taldeko eragina duten ideia berriei balioa eman. Pertsonak, erakundeak eta gizarteak gai dira beren etorkizunetik onena lortzeko, nahi izanez gero. Berrikuntzak, garapenaren oinarriak eta ezagutzaren transmisioa eskatzen ditu.

2. Lan- esparrua

2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakunde- deei buruzkoa

Bere IV. kapituluaren xedea da baldintzak arautzea Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundearen gobernu- eta administrazio-eginkizunak betetzeak berekin dakartzan arauak eta plangintza- eta erabakitze-tresnak egiteko prozesuan pertsonak eta elkar-
teek benetan parte-hartuko dutela bermatze-
ko. Kapitulua honen xedea da ere herritarren partizipazio-eskubidea bermatzea. Herritar orok izango du politika publikoetan parte hartzeko eskubidea. Hartarako, erakundeek eskubide hori bermatuko dute eta baliabideak jarriko dituzte hura gauzatze aldera.

46/2020 DEKRETUA, martxoaren 24koa

Herritarrek parte hartzeko 1., 2. eta 3. ata-
letan, lurralde- eta hirigintza-plangintzaren
tramitazioan zera adierazten du:

1. Lurralde- edo hirigintza-antolamenduko
edozein figura formulatu, berrikusi edo alda-
tzeko hasierako erabakiarekin edo ebazpe-
narekin batera, parte hartzeko programa bat
egin beharko da. Plan horretan, behar adina
helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko
dira, herritarrek eta elkarrekin parte hartzeko
eskubidea izan dezaten.

2. Herritarrek parte hartzeko delako progra-
ma oso-osorik argitaratuko da Euskal Herri-
ko Agintaritzaren Aldizkarian edo dagokion
lurralde historikoko aldizkarian; herri-admi-
nistrazio sustatzailearen arabera; informa-
zio-teknologia berrien bitartez hedatuko da,
eta, parte hartzeko mekanismo hauek izan-
go ditu, gutxienez:

a) Parte hartzeko gida bat, herritarrek
parte hartzeko prozesuaren jarraibideak
eta edukiak ez ezik, xehetasunak ere
deskribatuko dituen; horretaz gain, par-
te hartzeko abiapuntu gisa erabiliko diren
edukien laburpena bilduko da gida horre-
tan.

b) Jendaurreko bilkurak, non azalduko
baitira ekimenaren edukia eta espedien-
tea izapidetzean aurkeztutako aukera po-
sibleak.

c) Dibulgazio-materiala: legediak eskatu-
tako dokumentuekin batera prestatu be-
harko da, dokumentu horiek hedatzen eta
ulertzen laguntzeko.

Baldintza Teknikoen Agirian ezartzen diren Araba Erdialdeko LPParen Be- rrikuspenaren Idazketa zuzendu behar duten Parte-Hartzearen Zehaztapenak

2.3. Parte-hartzearen zehaztapenak

Burutu beharreko Partaidetzari dagoz-
kion lanek bi aspektu dituzte: Herritarren
Parte-hartzearen Programa idaztea eta hori
garatzea eta gauzatzea. Parte-hartze proze-
suaren garapena, aurretiko eragilearen mapa
jasoko duena, lanaren zuzendaritzarekin ados-
tuta burutuko da.

4/1990 Legean, Euskal Herriko Lurralde
Antolakuntzari buruzkoan, ezarritako jen-
daurreko erakustaldia eta entzunaldiaren
epeez gain, ezaugarri hauek dituen planak
diziplinarteko lan teknikoak garatzea eta
erakunde- zein giza-eragileek elkarrekin lan
egitea behar du; beraz, planaren konplexu-
tasunarekin bat datorren egitura metodologi-
koa behar du. Metodologia hau ondorengo
printzipiotan oinarritzen da:

a) Eragilearen elkarlana: aurretik eragilearen
mapa aurkeztuko da. Mapa horrek lanak
burutzeko beharrezkoak diren eragileak
identifikatuko ditu; udal-, foru-, erkide-
go-erakundeak, ekonomia-, kultura- eta

gizarte-eragileak, baita negoziazioa, elkarlana eta partekatutako helburuak eta estrategiak errazten dituzten espazioak eta mekanismoak ere identifikatuko ditu.

b) *Ikuspuntu transdiziplinarra: programaren izaera kontuan hartuta, ikuspuntu metodologikoaren beharra dago diziplina edo sail desberdinen arteko eragileen arteko lana errazten duena, zeinek lanen garapenean esku hartu behar duten: ingurunea, jarduera ekonomikoa, kultura eta turismoa, hirigintza eta mugikortasuna eta ondarea, besteak beste.*

c) *Lanen zabalkundea eta ikusgaitasuna: plana garatu bitartean eta funtsezko osagai gisa prozesuaren emaitzak bistaratuko dira. Horretarako guztirako, zabalkunde- eta komunikazio-tresnak erabiliko dira fase guztietan, ekintza dibulгатzaileen, komunikazio-kanpainen bidez eta gainera, prozesuan sortutako dokumentuak argitaratuko dira goian aipatutako web orrietan.*

d) *Herritarren parte-hartzea: gertuko ingurunean arrakasta izateko berme gisa, metodologia bat proposatzen da herritarren parte-hartzea eta proiektuaren balioekiko sentsibilizazioa sustatzen dituen. Horretarako guztirako, sentsibilizazio eta pedagogia ekintzak burutuko dira, zeinek lurraldearekiko jasangarritasunaren eta identitatearen balioak sustatzen dituzten, betiere herritarren artean interesa sortzen duen ikuspuntu batetik.*

e) *Ebaluazioa eta jarraipena: denboran zehar plan mota hauek garatzeko jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak behar dira, zeinei esker burututako urratsak bistaratu, ekintzak gainbegiratu eta lagundu, eta erabakiak moldatu gertaera posibleen aurrean. Horretarako guztirako, herritarren ikuspuntuak zein ikuspuntu teknikoak barne hartzen dituzten sistemak proposatzen dira; hortaz, jarraipen taldeak sortuko dira lurralde-antolamenduan parte hartzen duten zenbait eragile barne hartzen dituztenak.*

Azaldu ditugun printzipioetatik abiatuta, bost kanaletan oinarritutako ekintzen inguruan eraikitako metodologia baliatzea proposatzen dugu. Denboran paraleloak baina edukian zeharkakoak diren bost estrategia. Bakoitzak elkarren osagarriak diren zenbait helburu lortu nahi ditu baina, oro har, osotasuneko ikuspegi batetik heltzen

diote proiektuari: Zabalkundea edo Ikusgarritasuna, Herritarrak edo Pedagogia, Parte-hartzea edo Adostasuna, Gobernantza edo Erantzunkidetasuna eta Dokumentazioa edo Erregistroa. Aspektu horiek egituraketa metodologikoa jasango dute Herritarrek Parte Hartzeko Programaren proposamenen, eskaintzaren zati izango dena eta betiere Baldintza Teknikoen Agirian ezarritako gutxieneko baldintzak betez.

Parte hartzeko faseak eta LPParen dokumentua idazteko faseak aldi berean burutuko dira, hau da, Aurrerapena, Hasierako Onartzea, Behin-behineko Onartzea eta Behin-betiko Onartzea dokumentuak idaztearekin koordinatuta.

Bestalde, kontuan hartu beharko da eta horrela adierazi beharko da parte-hartze prozesu hau lurralde-plangintzaren inguruko sentsibilizazio- eta pedagogia-prozesu jarraian inkardinatzen dela, batez ere digitalki eta Euskal Hiria urteroko kongresuak ospatzean gauzatzen dela. Prozesu osoan zehar, Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzaren web orria hornituko da eta parte-hartzearen berri emango da eta sustatuko da Twitter eta Facebook sareen ("Lurraldea" profilak) eta Irekia-ren bidez. Era berean, prozesuaren eragina adierazle batzuk sortu behar dira.

3. Metodologia

3.1. Ikuspuntu orokorra

Jendeak plana berrikusteko prozesuan parte hartzeari esker, “zuzendaritza eta kontrola” pertzepziozko ezarpen normatibotik at hel gaitezke. Horren helburua da arauak ezartzea erakunde- eta gizarte-eragileekin batera eremu funtzionalaren ikuspegi partekatua eraikitzea. Idazle-taldearen dimentsio administratiboa eta teknikoa osatzeko, gizartearen hausnarketa- eta irudimen-gaitasuna gehitu behar da.

Gainera, partaidetzari esker lurralde-estrategia erresilientean sakondu daiteke, ebaluatzen, planeatzen eta jarduten duena edonolako oztopoen aurrean prestatzeko eta erantzuteko, herritarren bizitza babesteko eta hobetzeko, garapenean aurrerape-nak bermatzeko, inbertitu daitekeen ingurua sustatzeko, eta aldaketa baikorra sustatzeko. Gizarte zibilari eta lekuko eragile guztiei aukera eman behar zaie elkarrekin planeatzeko eta erabakitze mekanismo errazen eta barneratzaileen bidez, elkarrekotasuna errazten dutenak eta pertsonetan arazten direnak. Horri esker, guztiek baldintza onetan aurre egingo diete hurrengo urteetan agertuko diren errealitate berriei; hortaz, etorkizuneko erronkak aukera berriak bihurtuko dituzte.

Partaidetza telematikoko tresnak ezarriko dira eta, pandemia egoerak aurrera egin ahala, aurrez aurreko ekintzak burutzeko aukera kontuan hartzen da. Horretarako, mahai-tematiko batzuk, informazio- eta elkarlan-jardunaldiak programatzen dira. Horiek guztiak gai sektorialetara bideratzen dira, bi multzo nagusietan jasota, ingurune-koa (erresilientzia, bizi-kalitatea, lurralde-metabolismoa) eta ekonomikoa (jardue-

ra ekonomikoak, logistika, despopulatzea), estrategia osoa zeharkatzen duten gaiak baitira. Gai horiek lurraldearen ahultasun eta aukera nagusiak barne hartzen dituzte. Gainera, beharrezko dokumentu grafikoak egingo dira partekatu eta ezagutu daitezen.

Herritarrek Parte Hartzeko Programa eta bere emaitzak telematikoki irakurgai egongo den dokumentazioaren zati izango dira, programa ulertzea, bere sozializazioa eta hedapena errazteko.

3.1.1. Parte-hartzearekin jarraitzea

Araba Erdialdeko eremu funtzionalaren Lurralde-Plan Partziala berrikusteko aurretik burutu berri diren ikerketa eta diagnosiek, bioeskualde gisa hartzeko testuinguruan, zenbait bilera burutu zituzten lurraldeko eragile batzuekin, nagusiki Arabako Foru Aldundiakoak eta beste sektoretakoak.

LPPa Berrikusteko parte-hartze prozesua harreman horiek berrartuko lituzke eta eragileen mapan (dokumentu honen 8. atala) atzemandakoak gehituko lituzke.

Agirietan jasotzen diren parte-hartze zehaztapenek metodologia bat adierazten dute, bost xede edo kanal ezartzen dituenak, LAGak berrikustean garatutako parte-hartze prozesuaren nomenklaturari jarraituz: Zabalkundea edo Ikusgarritasuna, Herritarrak edo Pedagogia, Parte-hartzea edo Adostasuna, Gobernantza edo Erantzunkidetasuna eta Dokumentazioa edo Erregistroa. Araba Erdialdeko eremu funtzionalaren Lurralde-Plan Partziala egiteari laguntzen dion Herritarrek Parte Hartzeko Programa xede horiek jarraituz egituratuko da.

3.1.2 .Xedeak edo Kanalak

Zabalkundea edo Ikusgarritasuna

Funtsezko helburuetako bat da parte-hartze programan dauden helburuak, estrategiak eta ekintzak komunikatzea modu ulergarrian eta didaktikoan. Garatutako tresna digitalek jendearen eskura jarriko dituzte sortutako dokumentuak eta euren edukiak zentralizatu dituzte; hortaz, prestatze-prozesuan zehar eskuragarri egongo dira.

Herritarrek edo Pedagogia

Parte-hartze inklusiboa, desberdindua eta hezitzailea bilatzen da: herritarren kultura eratzea. Proposatutako ereduak talde sozial eta erakundeak partaide egiten saiatzen du, alde ekonomikoak eta kulturalak zein adine-

koak alde batera utzita; hizketakide bakoitzarentzat espazio zehatzak zehazten ditu, parte-hartze aktiboagoa duten tresnak konbinatzen ditu beste tresna batzuekin zein-tan ikusle edo hartzaile gisa parte hartzen den. Horrela, parte-hartzearen pedagogia jarraitua sustatzen du zenbait ekintzen bidez.

Parte-hartzea edo Adostasuna

Parte-hartze prozesua burututako proposamenak balioztatzen eta alderatzen saiatzen da ere. Herritarren ikuspegia eta esperientzia gehitu beharra dago (zerbitzu publikoen erabiltzaile gisako ikuspuntutik) prestazio hori diseinatzean, birdefinitzean edo hobetzean. Eraginkortasunean arreta gehiago jartzen duen eta izaera operatiboa duen parte hartzeko dimentsioa da: zerbitzu publikoen eskaintza nola doitu eta hobetu.



Herritarren harremanak irudikatzen dituen grafikoa. Iturria: Ezquiaga. Arquitectura, Sociedad y Territorio. S.L.

Gobernantza edo Erantzunkidetasuna

Ezarri den bezala, parte-hartzea, eskubide bat izateaz gain, herritarren betebeharra da (betiere borondatezkoa eta desiratua). Hortaz, ekintza horietan parte hartzeak erakundeen eta herritarren arteko gobernantza partekatua bermatu behar du, herritarrak euren lurraldearen kudeaketa prozesuaren erantzunkideak izango baitira. Erantzunkidetasuneko inguruen garapena sustatu behar da, zeinetan publikoa dena elkarrekin kudeatzen den: gehitzeko nola elkarrekin lan egin.

Dokumentazioa edo Erregistroa

Parte-hartze prozesu osoa eta lotutako ekintzak erregistratu behar dira, jasota geratzeaz gain, LPPa burutzeko produktu gisa erabilgarriak eta etorkizunerako jardunbide egokien eredu izan daitezen ere. Prozesuan berrerabilgarritasunaren alde eginez eta kode irekiaren filosofia jarraituz, zeinean prozesu berri bakoitzak aurrekoez hornitu ahalko (eta beharko) litzatekeen.

3.2. Parte-hartzeko mekanismoak

3.2.1. Mekanismoak ekintza motaren arabera

Parte-hartzea tailer digitalen (edo aurrez aurrekoen) bidez

Tailer digitalak publiko orori irekitako tresnatzat hartzen dira, zeinetan gizatalde bakoitzak aukera izan ekarpen baliagarriak proposatzeko. Iaz sortutako (edo hobetutako) tresna berriei esker aurrez aurre parte hartzeko dinamikak online plataformetan burutuko diren lantalde-saioetara aldatu daitezke neurri handi batean. Materialak moldatuko dira eta ondo azalduko dira parte-hartzea errazteko.

Herritarren parte-hartzeak euren imajinarioak zabaltzen ditu, ezagututako errealtateetan oinarritzen direnak. Gainera, horri esker euren desirak antzeman daitezke. Euren papera pasiboa izan daiteke (euren lurraldeari eta horren funtzionamenduari buruzko ezagutza berriak ikastea) eta aktiboa (proposatzea, iradokitzea, eskatzea...). Pertsona adituek (arlotan akademikoan, profesionalean edo eremu jakin batean duten esperientzia dela eta) gaitasuna dute, euren prestakuntza dela eta, paper aktiboa izateko imajinario berrien sorkuntzan eta eman daitezkeen egoeren ikuskapenean. Tailerren emaitza da ekintza posibleak eta gomendioak sortzea.

Parte-hartzea online (edo aurrez aurreko) ekitaldien bidez:

Arabako lurraldean herritarrek aurkikunde berria burutu dezakete streaming-ean igor daitezkeen ekintzen bidez. 2020 urteko bizipenari alderdi baikorra bilatuz, konturatu gara zoom, jitsi edo tankerako plataformak pertsona askoren egunerokotasunaren zati direla orain. Era berean, biztanleriaren sektore gehienetan ohikoa bihurtu da ikastaroak, tutorialak edo edonolako ikus-entzunezko produktu streaming-a onartzen duten

plataformen bidez, youtube adibidez, kontsumitzea. Horregatik guztiagatik, prozesuaren zatiak online ematea proposatzen dugu; proiektuari buruzko zabalkunde-kanal gisa ari dadila eta lurraldearen inguruan, hurbi-lketa desberdinetatik, hausnartzeko plataforma gisa erabili ahal izateko.

Parte-hartzea jarraipen digitalarekin:

Dibulgazio-materiala diseinatuko da edukiak eta ondorioak zabaltzeko eta Parte-hartze Gida bat egingo da, dena hiztegi ez teknikora moldatuta. Material hauek web orriaren eta sare sozialen bidez zabalduko dira.

Tresna digitalek lau alderditan garatzen dute partaidetzaren ideia: parte hartzeko tresna gisa, zeinean herritarrek aukera duten iritziak, desirak eta iradokizunak partekatze-ko; herritarren pertzepzioa ezagutzeko bide gisa; herritarren bat-bateko ekintzak bideratzeko eta kudeatzeko bide gisa eta proposamenen eta ideien hedatzaile gisa.

3.2.2. Mekanismoak parte-hartzearen rolaren arabera:

Teknika ugari daude herritarren parte-hartzea garatzeko, plangintza-tresna zehatz bati moldatzeko behararen araberrako ñabardura desberdinak dituztenak. LPParen kasuan, bere izaera estrategikoa dela eta, ezinbestekoa da herritarrek orokorrean zein eragile adituak barne hartzea.

Adituen parte-hartzea:

Adituen zein erakundeen parte-hartzea bi tekniken bidez proposatzen da:

1. Elkarriketa erdiegituratuak eragile estrategikorekin.

Elkarriketen asmoa da sektore anitzeko eragile adituen arteko adostasunerantz aurrera egitea. Elkarriketa hauek informazio ugari eskainiko dute, eragile adituen esperientzia jasoko baitute aukera egokienak triangulatzeko eta adosteko, baita eskualdeak aurrean dituen arazo nagusiak ere.

Elkarriketa-sorta hau parte-hartze prozesuaren abiapuntu gisa aurkezten da, ondorengo faseak garatzeko gida orokor gisa erabiltzeko aukera egon dadin.

Talde-mapa plataforma digitalaren bidez. Isaba (Nafarroa). 2020. Iturria: cAnicca.

2. Gaien arabera mahai-inguruak (online edo aurrez aurre).

Egungo lurraldearen eta hirien plangintzan paradigma aldaketaren inguruan sentsibilizazioa eta hezteko funtsezkoa da biztanleria-mailan, baita administrazioak erabakiak hartzean ere. Erakundearen arduradunen arteko lankidetzak sareak funtsezkoak dira hiri-eraldaketa eta birsorketa prozesuak abian jartzeko, zeharkako eta diziplina arteko ikuspuntua funtsezkoa baita XXI. mendeko lurraldeen, ekonomiaren, ingurunearen eta biztanleriaren erronkei heltzeko.

Hortaz, parte-hartzea artikulatzen duen tekniketako batek kontuan hartzen du Administrazioen batera burututako lana, LPPa inplementatzeaz arduratzen direnak eta zeinaren eragina jasan dutenak. Erakundeekin proposatutako ekintzek Gobernuaren Sailen zein parte hartzen duten gainerako erakunde publikoen arteko sormen eta diziplina arteko eztabaida sustatu behar dute. Sortutako elkarriketei esker, Arabako eskualdearen etorkizuneko ikuspegiak eztabaidatu eta alderatu ahalko dira.

Ikuspuntu honetatik proposatutako ekintzetan gizarte-eragileek (adituek ere) parte hartzea bilatuko da, zeinengan eztabaidatzen diren gaiak eragin zuzena duten. Esperientzia pertsonaletik ekarpenak egiteak expertise-ko izaera interesgarria emango dio eta eztabaida aberastuko du.

Helburuen eta estrategien arabera jardun beharko da, LPParen ibilbide-orri gisa gehitzeko, ekintzak bere lehentasunaren arabera ordenatzen epe laburrera, ertainera eta luzera.

Herritarren parte-hartzea:

Herritarren parte-hartze orokorrak zenbait forma hartzen ditu:

1. Online galdeketa.

Online galdeketa (CAWI: Computer-assisted web interviewing) herritar orokor ez adituek parte-hartzeko tresna erraz eta lagungarri gisa proposatzen da. Bere planteamendua dela eta galdetegi laburra da, funtsean antzemandako aldaerak eta proposatutako lerro estrategiko orokorrekin elkarrekotasuna alderatzen dituen.

Online galdeketa bidez parte hartzeak parte-hartzaileek proiektua ezagutzea eta ekarpenak egitea ahalbidetzen du. Beraz, noranzko biko tresna gisa proposatzen da; dibulgazioa – bilketa. Galdetegiaren diseinuan zenbait aldagai gehitu ahalko dira, Lurralde-estrategiaren garapenaren une bakoitzean egokitzen hartzen diren kopuruen arabera.

Lagin-hautaketa lortutako erantzunez abiatuta egiten da, maila geografikoan eta demografikoan adierazgarria izan dadin. E-mailak estatistikoki aztertuko dira eta, besteak beste, ondorengo aldagaiak hartuko dira kontuan:



Youtube bidez streaming-ean igorritako debata. Hirigintza Covid garaian topaketa Tafalla (Nafarroa). 2020. Nafarroako Gobernua + cAnicca.

- a) Eskualdearen arazoak lehenestea.
- b) Arabarentzat etorkizuneko aukerak antzematea.
- c) Gaiei buruzko iritzia:
 - Lurralde-egitura
 - Ingurunea, baliabideak eta paisaia
 - Garapen ekonomikoa
 - Biztanleria eta lan-merkatua
 - Bizi-kalitatea
 - Mugikortasuna
- d) Aldagai demografikoak
 - Generoa
 - Adina
 - Jaioterria
 - Bizileku mota
 - Jarduera ekonomikoa

Online galdetegia pertsona guztiei irekita dago erakundeen zabalkunde-mekanismoen bidez, hala nola, Irekia plataformaren bidez edo @irekia edo @lurraldea profilen bidez, edo prozesuaren web orriaren bidez.

2. Online (edo aurrez aurreko) tailerrak eta ekitaldiak

Herritarrek orokorrean topaketa birtualen bidez landuko dituzte eskualdearen inguruko plangintza gaiei dagozkien gaiak, behintzat osasun-egoera aldatzen ez den bitartean. Topaketa hauek publiko orori irekitako tresna gisa hartzen dira zeinean talde edo kolektibo bakoitzak euren beharrak azaldu.

Adierazteko, eztabaidatzeko, sormeneko, sareak sortzeko eta ideiak partekatzeko espazioa ezartzea da ekitaldi horien inguruko ideia. Herritarren parte-hartzeak berehalako errealitatearen esperientziaren bidez sortutako imajinarioak zabaltzea eta herritarren desirak jasotzea ahalbidetzen du. Euren papera pasiboa izan daiteke (euren lurraldeari eta horren funtzionamenduari buruzko ezagutza berriak ikastea) eta aktiboa (tailer birtualen bidez proposatzea, iradokitzea, eskatzea eta desirak zein beharrak azaltzea).

Tailerrak online burutzean tailer bakoitzarentzat biztanleria-taldeak eratu daitezke eremu bakoitzaren ezaugarrien arabera, euren arteko urruntasuna alde batera utzita. Horrela, errazagoa da lantaldeak ezartzea zeinetan kuadrilla desberdinen biztanleak nahastu. Adibidez, tailer birtualentzat proposatutakoa: Vitoria-Gasteiz eta gertuko ingurua, A1en eragin-ardatza eta Landa-eremuak.



“Hirigintzaren erronkak Covid garaian” tailerra. Tafalla (Nafarroa). 2020.
Iturria: cAnicca.

3.2.3. Eragileen mapa

Parte-hartze prozesua irekitzeko edo parte-hartzeko organo iraunkorra eraikitzeko, lehenik, ezarri behar dira eztabaidatuko diren kontuak edo politika publikoak eta nortzuk izango diren eztabaidaren solaskideak. Parte-hartze prozesu bat modu egokian burutzeko bere garapenean parte-hartzaile bakoitzak izango duen rola zehaztu behar da. Horren zati gisa, gizarte zibilaren eragileen hautaketa bat egiten da, zeinei jo komunitatearen ordezkari gisa. Partaidetza teknikoko, instituzionaleko eta sozialeko eredua proposatu da, LPPa burutzeko faseen arabera.

Parte hartzeko proposatu diren eragileen hautaketa ondorengo irizpideetan oinarritzen da:

1. Solasaldi teknikoko gaitasuna duten pertsonak hautatzea eremu tekniko bakoitzean. Horri esker arazoak eta potentzialtasunak zehaztasunez antzeman ahal izan dira.

2. Eragileen jatorriaren aniztasuna; hortaz, lurraldearen ikuspegi desberdinen ordezkapen egokia lortu da.

3. Lurralde-mailan erabakiak hartzean tradizioaz alde batera utzi diren gizarte-taldeak ordezkatzeko.

Hortaz, hona eragile parte-hartzaileak:

Administrazioa:

- **Administrazio Zentrala**

- Ebroko Konfederazio Hidrografikoa
- Errepide Mugapea
- ADIF - Tren-Azpiegituren

Administratzailea

- **Eusko Jaurlaritza**

- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila
- Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumen Saila
- Gobernantza Publikoa eta Autogobernu Saila
- Ekonomia eta Ogasun Saila
- Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

- **Arabako Foru Aldundia**

- Zerbitzua: Lurralde Antolamendua eta Hirigintza
- Zerbitzua: Nekazaritza
- Zerbitzua: Ingurunearen jasangarritasuna
- Zerbitzua: Bide azpiegiturak
- Zerbitzua: Erronka demografikoa, garapen ekonomikoa eta berrikuntza eta Araba Garapen Agentzia
- Zerbitzua: Ingurumen-prebentzioa eta ura

- **Bizkaiko Foru Aldundia (Ubidea eta Otxandio)**

- Zerbitzua: Lurralde Antolamendua eta Hirigintza

- **Udal-mailan**

- Eremuaren udalerriak
- EUEDEL - Euskadiko Udalen Elkarte
- UEMA - Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea
- AKE - Arabako Kontzeju Elkarte.

- **Lurralde mugakideen beste erakunde batzuk**

- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Nafarroako Gobernu

- Gaztela eta Leongo Junta
- Miranda de Ebro
- Trebiñu
- Altsasu

- **Beste erakunde sektorial publiko batzuk**

- HAZI - Landa, Itsasertz eta elikagaien sustapena
- IHOBE - Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-kudeaketako sozietate publikoa
- URA - Uraren Euskal Agentzia
- EER - Energiaren Euskal Erakundea
- GILSA – Gasteizko Industria Lurra S.L.
- Gasteizko Garraio Zentroa. CTV VITORIA
- Ingurugiro Gaietarako Ikastegia, Gasteizko Udala
- Araba Garapen Agentzia

Lekuko erakundeak:

- Eremuaren auzo-elkarteak
- Arabako auzo-elkarteen Federazioa - FAVA
- Arabako Mendialdeko Kuadrilla
- Aguraingo Kuadrilla
- Vitoria-Gasteizko Kuadrilla
- Añanako Kuadrilla
- Zuiako Kuadrilla
- Landa Garapeneko Elkartea
- Ekologistak Martxan
- Elkarte feministak
- Gazteen elkarteak
- Herritarren beste elkarte batzuk

Jarduera ekonomikoa:

- CCOO - Comisiones obreras sindikatua
- UGT - Unión General de Trabajadores sindikatua
- LAB - Langile Abertzaleen Batzordeak
- ELA - Eusko Langileen Alkartasuna sindikatua
- Enpresarien Konfederakuntza
- EHNE - Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna sindikatua
- UAGA - Arabako Nekazarien Elkartea
- Euskadiko Nekazari-Elikagaien Kooperatiben Federazioa

Zientzia eta ezagutza

- Universidad del País Vasco - Euskal Herriko Unibertsitatea
- Jakiunde, Zientzia, Arte eta Letren Akademia
- NEIKER - Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea
- “ETNIKER EUSKALERRIA”
- Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala
- Euskadiko Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoa
- Euskadiko Geologoen Elkargo Ofiziala
- Euskadiko Biologoen Elkargo Ofiziala
- Ondartez
- ENEEK - Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua
- El Correo egunkaria
- Noticias de Álava egunkaria
- Berria Egunkaria
- Gara Egunkaria

3.3. Online parte-hartzea errazteko tresna digitalak

Herritarren parte-hartzea errazteko tresna digitalak urteak daramate garapenean; Decidim eta tankerako plataforma benetan landuak daude. Zenbait herri-administrazioak azken bosturtekoan erabilitako beste batzuen aurrean, Decidim adibide gisa erabili zen bere kode irekiko etika dela eta.

Hala ere, 2020. urtea tresna erabilgarriagoak sustatu ditu, prozesu bakoitzaren beharren arabera editatzeko eta moldatzeko aukerarekin, ezagutza tekniko handia izan gabe eta herritarrentzat orokorrean atseginagoak diren interfazeekin eta gainera, plataforma anitzetara moldatzen dena zenbait gailuen bidez parte hartu ahal izateko (ordenagailua, tableta, mugikorra...).

LPPa Berrikusteko parte-hartze prozesua burutzeko, eszenatoki bat proposatzen da

zeinean parte-hartze digitala benetan garrantzitsua izango den. COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiaren ondoriozko egungo murrizketak kontuan hartuta, egoera bat aurkezten baitu zeinean hainbat egoera jazoko diren aurrez aurreko kalitatezko parte-hartzea egoteko aukera baldintzatuko dutenak.

Hortaz, gaur egun merkatuan eskuragarri dauden zenbait software aztertu dira, bakoitzaren aukerak kontuan hartzeko eta proiektuaren beharrei zein moldatzen den balioes- teko. Beste hainbat egonda ere, ondorengo zerrendetan proiektu honetan erabilgarriak izan daitezkeen eginkizunetara zuzendutako softwareak baino ez dira sartu, tresna mota- ren arabera ordenatuak.

Ideiak elkartrukatzeako tresnak:

IZENA	DESKRIBAPEN OROKORRA	LAN- ESPAZIOA	GAILU BATERAGARRIAK	TXERTATU BEHARREKO FORMATUAK	LAN- DINAMIKA
JAMBOARD	Sormenezko kontzeptua garatzea	Arbela partekatua	Ordenagailua	Ohar itsasgarriak, idatzoharrak	Aldiberekoa
HORMA- IRUDIA	Sormenezko kontzeptua garatzea	Arbel interaktiboa	Ordenagailua Tableta	Irudiak, oharak, dokumentuak eta estekak	Biak
MIRO	Sormenezko kontzeptua garatzea	Arbel interaktiboa	Ordenagailua Smartphone Tableta	Irudiak, oharak, dokumentuak, estekak, bideoak	Aldiberekoa
GROUPMAP	Online ideia-jasa denbora errealean	Arbela anizkunak	Ordenagailua	Ohar itsasgarriak, idatzoharrak	Aldiberekoa
CONCEPT BOARD	Proiektuak trukatzeko eta antolatzea eta iruzkinak egitea denbora errealean	Proiektuen espazioak	Ordenagailua	Ohar itsasgarriak, idatzoharrak, marrazkiak, bideoak, fitxategiak...	Biak

Tresnak talde-komunikazioarentzat:

IZENA	DESKRIBAPEN OROKORRA	LAN-ESPAZIOA	PLATAFORMA BATERAGARRIAK	TXERTATU BEHARREKO FORMATUAK	LAN-DINAMIKA
ZOOM	Bideokonferentziak eta berehalako mezularitza azpitaldeak sortzeko aukerarekin	Bideodeia taldeetan eta azpitaldeetan	Ordenagailua Smartphone Telefono finkoa	Elkarriketa edo talde-txata edo taldeen araberako gelak.	Aldiberekoa
JITSI	Bideokonferentziak eta berehalako mezularitza	Bideodeia	Ordenagailua Smartphone	Txata	Aldiberekoa
TEAMS	Bideokonferentziak eta berehalako mezularitza	Bideodeia	Ordenagailua Smartphone	Txata	Aldiberekoa
SPATIAL CHAT	Elkarriketak gertutasuneko sentsorearekin elkarriketak bideratzeko	Elkarriketarako espazioa	Ordenagailua	Panela taldeekin	Aldiberekoa

Tresnak galdetegiarentzat:

IZENA	DESKRIBAPEN OROKORRA	LAN-ESPAZIOA	PLATAFORMA BATERAGARRIAK	TXERTATU BEHARREKO FORMATUAK	LAN-DINAMIKA
Google FORM	Galdetegi basikoak	Galdetegia	Ordenagailua Smartphone Tableta	Erantzunak	EZ Aldiberekoa
JOT FORM	Galdetegi aurreratuak	Galdetegia	Ordenagailua Smartphone Tableta	Erantzunak	EZ Aldiberekoa
MENTIMETER	Aurkezpenak partaidetzarekin, emaitzak denbora errealean ikusteko aukera	Galdetegia, Irudiak hautatzea	Ordenagailua Smartphone Tableta	Erantzunak	Aldiberekoa
TYPEFORM	Galdetegiak interfaze atsegin batekin	Galdetegia	Ordenagailua Smartphone Tableta	Erantzunak Iritziak	EZ Aldiberekoa
SLI.DO	Galdetegiak denbora errealeko erantzunekin	Galdetegia	Ordenagailua	Erantzunak	Aldiberekoa
LIMESURVEY	Online galdeketa edizio-aukera aurreratuarekin	Galdetegia, Irudiak hautatzea	Ordenagailua	Erantzunak	EZ Aldiberekoa

Akzioak-tresnak eskema



Tailer digitalak



Online ekitaldiak



Jarraipen digitala



Elkarrizketak eragile estrategikoekin






Eztabaida-mahaiak





Online inkestak



Herritarren postontzia





- 1/ MURAL.
Iturria: cAnicca
- 2/ Spatial Chat.
Iturria: Spatial Chat
- 3/ Workadventure.
Iturria: Workadventure
- 4/ Zoom.
Iturria: cAnicca
- 5/ Montaje web
Iturria: Ezquiaga
- 6/ Jitsi
Iturria: cAnicca
- 7/ Debate en streaming.
Iturria: cAnicca
- 8/ Mentimeter
Iturria: Mentimeter
- 9/ Jotform.
Iturria: cAnicca



3.4. Euskaraz parte-hartzea erraztea

Herritarren parte-hartzea eskubide eta betebeharrak bat da, baina kontuan hartu beharra dago, orain arte lurraldean burututako parte-hartze prozesuen tradizioan behintzat, borondatezko eta ordainketarik gabeko parte-hartzea izan dela. Hau da, parte-hartzaileek euren orduak ematen dituzte guztien-ongira, lurralde partekatura. Hor-taz, komunerako arituko den espazio hori zaintzeko, funtsezkoa da pertsona bakoitzak aukera izan dezan modu erosoenean bere burua adierazteko.

Aurrekoaz bezainbatean, benetan garrantzitsua da erraztasun guztiak eskaini ahal izatea parte-hartze hori euskaraz zein gazte-leraz egiteko aukera egon dadin.

Programa honetan proposatutako ekintzei dagokienez, ondoren deskribatzen dira euskaraz parte hartzeko aukera bermatzeko eta zaintzeko moduak.

Komunikazioa

Komunikazioak, sare sozialen zein hedabide tradizionalen bidez, euskaraz zein gazte-leraz burutuko dira.

Proiektuaren web orria hizkuntz bietan ere irakurgai egongo da, baita proiektuaren Zuzendaritza Teknikoak (Eusko Jaurlaritzak) onartutako behin-betiko fitxategi edo dokumentuak ere.

Material dibulгатzaileak edo pedagogikoak hizkuntz bietan ere diseinatuko dira; dokumentu bera eduki elebidunarekin aurkeztea edo dokumentu beraren bi bertsio egotea, euskaraz eta gazte-leraz., ebaluatuko da kasu bakoitzean.

Parte-hartzea

Eragile estrategikoen elkarriketetan, horiek hastean parte-hartzaileei aukera emango zaie euren iritzia adierazteko erosoan dau-den hizkuntzan burutzeko.

“ COVID-19ko garaietan ESPAZIO PUBLIKOA nola bizi dugunari buruz hitz egin dezagun ... ”

5 minutu inguru beharko dituzu formulario hau osatzeko



Continuar sakatu Enter

Lekunberriko (Nafarroa) Herri
Diagnosi Parte-hartzaileako
azala. 2020.
Iturria: cAnicca.

Parte-hartze digitala, sare sozialen ekarpenen bidez zein eskuragarri egongo diren online galdetegi edo galdeketen bidez, burutu ahalko da euskaraz zein gazteleraz, galdetegiak hizkuntza bietan jarriko baitira pertsonen eskura.

Mahai-inguruen hasieran adostasuna bilatuko da komunikazioa errazteko gonbidatuen artean. Gainera, debatea moderatzen eta dinamizatzen duten pertsonak, mahaian zein debatean zehar publikoaren interakzioa kudeatzen, aurkezpen elebidunak egingo dituzte eta aukera izango dute euskaraz zein gazteleraz aritzeko ekintza ikusten dauden pertsonekin.

Lan-materialak edo parte-hartzeko tailer irekiak burutzeko plataforma euskaraz eta gazteleraz egongo dira eskuragarri. Ingelese baino ez dauden plataforma batzuen interfaze-menuen kalterik gabe. Horrekin arazoak eragozteko, tailerreko espazio guztiak, zeinekin parte-hartzaileek arituko diren, euskaraz zein gazteleraz erabilgarri egotea zainduko da. Era berean, laguntza tekniko elebiduna erraztuko da tailerrean zehar, lan-tresnekin eman daitezkeen arazoei aurre egiteko.

4. Prozesuaren egitura

Araba Erdialdeko LPPa Berrikusteko parte-hartze prozesua hiru etapetan egituratuko da, zeinetan Parte-Hartze Programa garatzeko behar diren ekintzak barne hartzen diren. Etapak ondoz ondokoak izatea proposatu arren, ekintza batzuk elkarren artean gainjartzen dira behar desberdinei heltzen baitizkie:

4.1. *Prestatze-lanak*

Hasierako etapa da, zeinean oinarriak ezartzearen inguruko ekintzak biltzen diren, prozesua modu egokian garatu dadin.

4.2. *Jendearen parte-hartzea*

Prozesuaren bigarren etapa berez parte-hartzeari lotutako ekintzak barne hartzen ditu, bai adituen parte-hartzea zein herritarrei orokorrean bideratutako parte-hartzea.

4.3. *Ondorioak eta Emaitzak*

Azkenik, hirugarren etaparen helburua da prozesua modu egokian ixtea, azken dokumentuak sortzea, baita herritarren itzulketa eta eskerrak kontuan hartzea.





Herritarren harremanak irudikatzen dituen grafikoa. Iturria: : Ezquiaga. Arquitectura, Sociedad y Territorio. S.L.

5. Denbora-eskema

Ondorengo eskemak Herritarren Parte-hartze Programaren hiru etapen eta orrian egituratutako LPParen proiektuaren faseen arteko elkarrekikotasuna erakusten du. Orrialde honetan lehenengo 3ak erakusten dira eta hurrengoan azken 3ak.

		1. FASEA; Aurrerapenaren aurrekoa eta Partaidetza Plana (Hilabete bat)					2. FASEA; Aurrerapena (Hilabete bat)					3. FASEA; PARTE-HARTZEA eta aurrerakina izapidetzea (Hilabete bat)			
ETAPAK	Asteak	1A	2A	3A	4A		1A	2A	3A	4A		1A	2A	3A	4A
PRESTATZEKO LANAK															
1. Ekintza	Dagoen dokumentazioa aztertzea														
2. Ekintza	Parte-Hartze Programa idaztea				*										
3. Ekintza	Zabalkundea eta Komunikazioa diseinatzea														
4. Ekintza	Proiektuaren irudi grafikoa diseinatzea														
5. Ekintza	Proiektuaren Web orria diseinatzea									*					
6. Ekintza	Material dibulгатzaileak diseinatzea eta gauzatzea														
7. Ekintza	Parte-hartzearen gida									*					
PARTE-HARTZE PUBLIKOA															
8. Ekintza	Elkarrizketak eragile estrategikori														
9. Ekintza	Web orria abian jartzea edukiekin														
10. Ekintza	Parte-hartze Digitala														
11. Ekintza	LPParen Parte-Hartze prozesua aurkeztea														
12. Ekintza	Gaikako mahai-inguruak														
13. Ekintza	Diagnosi-tailerren komunikazio-deialdia														
14. Ekintza	Diagnosirako parte hartzeko tailerrak														
15. Ekintza	Parte-hartzearen Memoria Partziala Idaztea (1)														*
16. Ekintza	Parte hartzeko prozesuaren informazioaren analisia														
17. Ekintza	Iritziak erkatzeko tailerren deialdia eta komunikazioa														
18. Ekintza	Iritziak erkatzeko parte-hartze tailerrak														
19. Ekintza	Parte-hartzearen Memoria Partziala Idaztea (2)														
ONDORIOAK ETA EMAITZAK															
20. Ekintza	Parte-hartzea amaitzeko jardunaldia														
21. Ekintza	Web orria eguneratzea behin-betiko materialekin														
22. Ekintza	Parte-hartzearen Azken Memoria idaztea														

6. Ekintzen deskribapena

Ekintzen fitxen helburua zera da: LPPa berrikusteko herritarren parte-hartze prozesua garatzean burutuko diren ekintza bakoitza sakontasunean deskribatzea.

Aurretik aurkeztutako lan-egituraren arabera batzen dira horiek, parte-hartze prozesuaren ondoz ondoko hiru une osatzen dituzte hiru multzoen baitan, hau da: Prestatze-lanak, Jendearen parte-hartzea eta Ondorioak eta Emaizak. Horrela, erritmo bat ezartzen da ekintzetan, multzo batzuetan gainjartzeko aukera egon arren, logika bati erantzuten diotenak, zeinetan multzo bat beste baten jarraipen argia den. Jarraipen hori dokumentazioaren mugarrietan adierazten da.

1. Prestatze-lanak:

01. ekintza - 07. ekintza

2. Jendearen parte-hartzea:

08. ekintza - 19. ekintza

3. Ondorioak eta Emaizak:

20. ekintza - 23. ekintza

Ekintza-fitxak diseinatuta daude horien helburua eta deskribapena zein ekintza bakoitza ulertzeko zenbait faktore modu antolatuan eta argian irakurtzeko moduan.

- Bere denborazkotasuna, Agiriaren fase bakoitzean ekintza garatzeko aurreikusten den asteari erreferentzia eginez.

- Kanala edo xedea, zeinari erreferentzia egiten dion, betiere Parte-Hartze Programaren dokumentuan aurretik garatutako informazioa aintzat hartuta.

- Ekintzaren publiko xedea, proiektuaren Zuzendaritza Teknikoarekin barne-bokazioa duten edo iritziak erkatzeko diren ekintzak

eta herritarrei orokorrean zuzenduta daudenak bereizten.

- Ekintza garatzean esku hartzen duten eragileak, batez ere talde teknikoaren kanpoko pertsonen edo erakundeen inplikazioa beharko duten ekintza horiek adierazteko.

- Entregagaiak, ekintzaren ondorioz sortzen direnak, baldin badaude. Bi entregagai mota bereizten dira, fase bakoitza amaitzean agiriak eskatzen dituenak eta parte-hartze prozesuan mugarriak direnak, baina memoriak edo dokumentu ofizialak ez direnak.

- Ingurunea, zeinean ekintza garatzen den. Ekintza gehienak digitalki garatzeko pentsatuak eta diseinatuak daude. Hala ere, alde handia egongo da ekintza erdipresentzialen (prentsaurrekoak edo debateak), zeinetan dinamizazio bat egongo den; eta guztiz digitalak izango diren ekintzen (galdetegiak adibidez) artean, garatzeko dinamizaziorik edo errazterik behar ez dutenak.

Talde teknikoaren barne-lanari zuzendutako ekintzak badira, horrela zehaztuko da fitxan.

- Adierazleak, ekintza ondo burutu den eta ekintzak bilatzen zituen helburuak lortu diren ebaluatuko dituztenak.

01. ekintza

Dagoen dokumentazioa aztertzea

Deskribapena:

Lanean aritzeko unera arte burututako txostenak edo ikerketak aztertu beharko dira Parte-Hartze Programan erabilitako ikuspuntuak eta metodologiak burututako proiektuen ibilbidearekin zein bere testuinguruarekin koherenteak izan daitezzen.

<i>Denborazkotak suna:</i>	1. Fasearen S1 → S2	<i>Kanalak edo xedeak:</i>	• Dokumentazioa
<i>Nori zuzenduta:</i>	• Barne-lanari	<i>Ingurunea:</i>	• Barnekoa
<i>Entregagaia:</i>	--		
<i>Adierazleak:</i>	• Aurretik burututako lana egungo prozesuari gehitzea. • Testuinguruan aurreko prozesuetan erabilitako kontzeptuak eta terminologiak mantentzea.		

2. ekintza

Parte-Hartze Programa idaztea

Deskribapena:

Parte-Hartze Programa Araba Erdialdeko LPPa berrikusteko parte-hartze prozesuarentzat gida gisa erabili ahalko den dokumentua da. Programa hau idazteko, parte hartzeko estrategia bat sortu beharko da, proiektuaren lurralde- gizarte- eta osasun-testuinguruaz arduratzen dena. Parte Hartze Programa honek parte-hartzeko eredua zuzenduko duen gobernantza-ereduarenoinarriak finkatuko ditu.

Denborazkotasuna:

1. Fasearen S1 → S2

Kanalak edo xedeak:

- Dokumentazioa
- Gobernantza

Nori zuzenduta:

- Zuzendaritza teknikoari

Ingurunea:

- Barnekoa

Entregagaia:

- Herritarren Parte-Hartze Programa

Adierazleak:

- Parte-Hartze Programa behin betiko idaztea, proiektuaren Zuzendaritza Teknikoarekin alderatu ondoren beharrezko doiketak gehituz.

03. ekintza

Zabalkundea eta Komunikazioa diseinatzea

Deskribapena:

LPPa berrikusteko parte-hartze prozesuaren zabalkundea eta komunikazioa bermatzeko, gida bat eratuko da. Gida horrek jarraibide batzuk eta kronograma bat izango ditu komunikatu beharreko ekintza edo ekitaldirekin, LPPa berrikusteko prozesuaren etapak publiko adituari zein aditua ez denari helarazteko. Zabalkundeeta komunikazio hau Eusko Jaurlaritzak orokorrean erabiltzendituen kanalenbidez egingo da.

Zabalkundearen eta komunikazioaren edukiak publikoentzat ulergarriak izateko diseinatuko dira, euskaraz zein gazteleraz, eta aukera egongo da komunikazio tradizionalen (prentsaren edo irratia) bidez edo sare sozialen bidez burutzeko; formatu fisikotan edo paperean.

<i>Denborazkotasuna:</i>	• 2. Fasearen S1 → S2	<i>Kanalak edo xedeak:</i>	• Zabalkundea • Gobernantza
<i>Nori zuzenduta:</i>	• Barne-lanari / Zuzendaritza Teknikoari (komunikazioa)	<i>Ingurunea:</i>	• Barnekoa
<i>Entregagaia:</i>	• Komunikazio- de programa		
<i>Adierazleak:</i>	• Komunikazio-estrategia zehaztea. • Komunikazioa koordinatzea eta proiektua idatziko duen taldearen eta Zuzendaritza Teknikoaren arteko koordinazioa zehaztea.		

04. ekintza

Proiektuaren irudi grafikoa diseinatzea

Deskribapena:

Parte-hartze prozesuaren komunikazioa errazteko garrantzitsua da ezagut daitekeen irudi grafiko erraza eta moldakorra izatea, zeinari esker Araba Erdialdeko LPPa berrikusteko prozesuaren testuinguruan burututako komunikazio guztiak batzeko. Irudia parte-hartze prozesuan erabiliko da, baina bere erabilgarritasunaren helmena egokitasunaren arabera izango da; beraz, proiektu osoan erabili ahalko da.

Hortaz, irudi hau moldatuko dakomunikazio ofizialetan, proiektuaren web orrian, komunikabideetan edo mahai-inguruetan zein tailerretan erabilitakolan-materialetan erabiltzeko.

Denborazkotasuna:

2. Fasearen S2 → S3

Kanalak edo xedeak:

• Zabalkundea

Norizuzenduta:

• Guztiei

Ingurunea:

• Digitala

Entregagaia:

• Proiektuaren irudiaren material grafikoak

Adierazleak:

• Irudiak erabiltzea bere formatuetan eta hautatutako hedabideetan (sare sozialak, web orria edo formatu fisikoa, hala nola, afixak edo informatzeko liburuxkak).

06. ekintza

Material dibulгатzaileak diseinatzea eta gauzatzea

Material dibulгатzaileak eta pedagogikoak sortzearen helburua da LPPa zer den, bere berrikuspenaren xedea zein den eta berrikuspen prozesuaren eragile desberdinek parte hartzea zergatik den garrantzitsua azaltzea, sentsibilizatzea eta horren berri ematea.

Deskribapena:

Izaera grafikoko eta digitaleko tresna izango da, hizkuntz ez adituarekin erabilgarriak izango direnak profil eta maila tekniko desberdinak dituzten pertsonentzat. Material hori moldatu ahalko da hainbat komunikazio-espaziotan erabiltzeko, hala nola, sare sozialetan, web orrietan edo ohiko hedabideetan, prentsan adibidez.

Denborazkotasuna:

2. Fasearen S3 → S4

Kanalak
edo
xedeak:

- Zabalkundea
- Herritarrak

Nori

- Guztiei

Ingurunea:

- Digitala


zuzenduta:

Entregagaia:

- LPPari buruzko material dibulгатzailea

Adierazleak:

- Pedagogikoa den material grafikoa sortzea



Cao de Jimena de la Fronteraren ondare-multzaren kudeaketa komunitarioko prozesurako dibulгатzio-materialak. Iturria: cAnicca

07. ekintza

Parte-hartzearen gida

Parte-Hartzearen Gidarenhelburua da adituen zein herritarren parte-hartzera irekitako prozesuan nola parte hartu deskribatzen duen dokumentua izatea.

Deskribapena:

Gaur egungo pandemia testuinguruaren egoera dela eta, LPPa berrikusteko batez ere urrutiko parte-hartzea proposatzen da. Urrutiko parte-hartze hori, zenbait tresna digitalekin diseinatuko da, zeinei esker modu onenean lortu parte-hartzearen gertaera bakoitzean zehaztutako helburuak. Tresna digitalen bidez parte-hartzea, a priori, oztopo bat izan daiteke pertsona askorentzat; hortaz, jarraibide hauen bidez, parte-hartzeko mekanismoen multzo osoa agerian jartzeaz gain, profil guztientzat erabilgarria den gida bat sortu nahi da, prozesuari lagunduko dioten parte-hartzeko tresnetara gerturatzea erraztuko eta sinplifikatuko dutenak.

Denborazkotatuna:

2. Fasearen S3→ S4

*Kanalak
edo
xedeak:*

- Zabalkundea
- Herritarrak

*Nori
zuzenduta:*

- Guztiei

Ingurunea:

- Digitala

Entregagaia:

- Parte-hartzearen gida

Adierazleak:

- Parte-hartzeko mekanismoak eta jarraibideak biltzen dituen dokumentua sortzea
- Eduki hori proiektuaren Web orrian argitaratzea

08. ekintza

Elkarrizketak eragile estrategikori

Parte-hartzearen lehenengo etapan, zenbait eragile estrategikori elkarrizketak egingo zaie, zeinei esker lurraldearen errealitatea ezagutu, lekuko testuinguruaren beharrak eta erronkak antzeman LPPari dagokionez.

Deskribapena:

Eragileen mapa aztertuko eta osatuko da proiektuaren etapa honen helburua lortzeko estrategikoak izan daitezkeen profilak hautatzeko. Elkarrizketa erdiegituratuak burutuko dira, ondorengo analisiaren bidez, diagnosi adostua zehazten joateko.

Elkarrizketaren espazioa aukera izango da ere parte-hartze prozesuaren hedapena egiteko eragile estrategikoen artean, aldi berean aukera izango dutenak “prozesuaren bozgorailu” gisa aritzeko.

<i>Denborazkotasuna:</i>	3. Fasearen S2 → S4	<i>Kanalak edo xedeak:</i>	• Parte-hartzea • Zabalkundea
<i>Norizuzenduta:</i>	• Eragile estrategikoei	<i>Ingurunea:</i>	• Erdipresentziala; online
<i>Entregagaia:</i>	--		
<i>Adierazleak:</i>	• Eragile estrategikoak elkarrizketatzea • Elkarrizketetan jasotako informazioa prozesuaren ondorioetan gehitzea.		

09. ekintza

Web orria abian jartzea edukiekin

Deskribapena:

Jendearen parte-hartzearen blokearen hasieran proiektuaren Web orria abian jarriko da. Parte hartzeko prozesuaren mugarri nagusien segida lagunduko du LLParen garapenean gardentasuna eta informazio eguneratuaren elkartrukea bermatzeko.

Igorpen hauetan 10. eta 11. ekintzak, parte-hartze digitala irekitzea eta parte-hartzeko prozesuan jendaurrean aurkeztea, aldi berean gauzatuko dira.

<i>Denborazkotakotazuna:</i>	3. FasearenS1	<i>Kanalak edo xedeak:</i>	• Zabalkundea • Herritarrak
<i>Nori zuzenduta:</i>	• Guztiei	<i>Ingurunea:</i>	• Digitala
<i>Entregagaia:</i>	• Web		
<i>Adierazleak:</i>	• Web orria abian jartzea 3. Fasearen hasieran • Web orrian honakoa gehitzea: LPPari buruzko informazio orokorra, material dibulгатzailea, parte hartzeko jarraibideak, parte-hartze digitalerako sarbidea, parte-hartze lehenengo etaparentzat aurreikusitako ekintzak eta datak.		

10. ekintza

Parte-hartze Digitala

Parte-Hartze Digitala kanal bat izango da, zeinaren bidez parte hartzeko modu jarraitua ezarri eta aukera izan herritar guztien ekarpenak jasotzeko. Parte-hartze ez dinamizatu eta espontaneo izango da. 3. Fasearen hasieran irekiko da kanal hau eta horren hasieratik amaierara arte egongo da erabilgarri.

Deskribapena:

Parte-hartze Digital honetarako bi formatu desberdin proposatzen dira. Alde batetik, postontzi irekia eta formatu irekikoa, posta elektronikoaren bidez kudeatzen dena. Bestetik, galdetegi erraza eta hizkera inklusibo duena, teknizismoak ez dituen, zeinari esker ekarpenak jaso modu egituratuagoan. Parte hartzeko formatu biak proiektuaren Web orrian egongo dira, parte-hartzeko jarraibideekin batera. Galdetegira sartzeko aukera dago Irekia plataforma digital ofizialean ere. Proiektuarekiko ekarpenak edo iruzkinak modu arinean egiteko aukera egongo da ere sare sozialetan #ptpAlavaCentral etiketa erabiliz.

Mekanismoen bidez jasotako informazioa antolatuko eta iragaziko da ondorioak lortzeko, parte-hartzearen azken memoriara eta LLParen behin-betiko Dokumentua idaztean gehitu daitezten.

<i>Denborazkotasuna:</i>	3. Fasearen S1 → S4	<i>Kanalak edo xedeak:</i>	• Parte-hartzea
<i>Norizuzenduta:</i>	• Guztiei	<i>Ingurunea:</i>	• Digitala
<i>Entregagaia:</i>	• Parte-hartzeko sistema digitalak		
<i>Adierazleak:</i>	• Ekarpentak jasotzea Parte-hartze Digitalaren kanal bien bidez • Bildutako ekarpenen laburpena egitea		

11. ekintza

LPParen Parte-Hartze prozesua aurkeztea

Parte-hartze prozesu irekia ezagutzera emateko helburuarekin, aurkezpen instituzional bat egingo da, zeinean helburuen eta parte-hartze prozesura lotutako gertaeren zabalkundea egingo den. Jardunaldi honen bidez hasiera emango zaio jendeari irekitako prozesuari eta plataforma digitalei, zeinetan lagunduko den.

Deskribapena:

Aurkezpenaren zabalkunde-kanpaina bat burutuko da prentsa-oharretan eta aurretik zehaztutako hedabide digitalen bidezko komunikazioan oinarrituko dena. Aurkezpen honetara Araban nagusi diren komunikabideak deitzera iradokitzen da, baita Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Araba Erdialdeko LPPa berrikusteko idazle-taldearen ordezkariak ere. Herritar guztiei irekitako jardunaldia izango da, baina batez ere profil politikoei eta teknikoei zuzendutakoa, oihartzun mediatiko handia izatea bilatuko duena ondoren prozesua hedatzea errazagoa izan dadin.

<i>Denborazkotakuna:</i>	3. Fasearen S1	<i>Kanalak edo xedeak:</i>	• Zabalkundea
<i>Nori zuzenduta:</i>	• Profil politikoei eta teknikoei • Administrazioari • Herritarrei orokorrean	<i>Ingurunea:</i>	• Aurrez aurrekoa; online
<i>Entregagaia:</i>	• Aurkezpena eta prentsaurrekoa		
<i>Adierazleak:</i>	• Komunikabideekin prentsaurreko bat egitea • Sektore tekniko eta politiko anitzak bertaratzea • Berria komunikabideetan agertzea prentsaurrekoa baino lehen eta ondoren..		

12. ekintza

Gaikako mahai-inguruak

Gaikako mahai-inguruak burutuko dira LLParen gai nuklearren inguruan elkarriketarako espazio kritikoa sortzeko, zeinari esker imajinarioak zabaldu eta aukerak, erronkak zein zailtasunak aztertu aldaketak azaltzeko orduan.

Deskribapena:

Mahai-inguruek gai bakoitzeko adituak bilduko dituzte. Aditutzat hartuko dira gai zehatz baten erabaki-postuetan dauden eragileak, mundu akademikoko pertsonak, euren esperientzia pertsonalagatik gaira eztabaida ekar dezaketenakedo beste pertsona batzuk gaien bate keragin berezia izan badu haiengan.

Proposamen honen asmoa da zeharkako elkarriketarako espazioa bermatzea esperientzia edo ikuspegi desberdinak dituzten ahotsak elkartzen dituenak. Ondorengo gaien inguruan 2 mahai-inguru proposatzen dira, ondorengo etapetan zehaztuko diren beste gai zehatz batzuk hartuko dituztenak.

> Ekonomia

> Ingurumena

Mahai-inguruak igorriko dira; horrela, herritarrek parte hartzeko aukera izango dute txat baten bidez. Herritarren galderak parte-hartzaileei helaraziko zaizkie, eta elkarriketa dinamizatuko eta erraztuko da. Horiek grabatuko dira, ondoren proiektuaren Web orrian egongo den edukia izan dadin.

<i>Denborazkotasuna:</i>	3. Fasearen S2 → S3	<i>Kanalak edo metak:</i>	• Zabalkundea • Herritarrak • Parte-hartzea
<i>Nori zuzenduta:</i>	• Guztiei	<i>Ingurunea:</i>	• Erdipresentziala; online (edo aurrez aurrekoa)
<i>Entregagaia:</i>	• Mahai-inguruak		
<i>Adierazleak:</i>	• Online emandako bi mahai-inguruak garatzea • Debateen bideoak Web orrian egotea.		

13. ekintza

Diagnosi-tailerren komunikazio-deialdia

Parte hartzeko tailer irekiak ezagutzera emateko eta zabaltzeko komunikazio-kanpaina bat burutuko da. Kanpaina honek 03. ekintzan zehaztutako eta adostutako jarraibideak jarraituko ditu eta hedabide tradizionalen zein sare sozialen bidez burutuko da.

Deskribapena:

COVID-19aren ondoriozko osasun-neurriek eragindako aldaketa etengabeak direla eta, eta segurtasun-neurriak ziurtatzeko eta azken orduko aldaketak saihesteko, tailer-fase hau online egitea proposatzen da. Tailerren dinamikak errazteko eta aspektu teknikoak zaindu ahal izateko, tailerretan parte hartzeko aurretik izena eman beharko da.

Komunikazio-ekintza hau tailerrak eta bere helburuak hedatzera bideratuko da, baita izen-emateak lortzera; hortaz, aurretik lantaldeak eratuko dira saioen garapena errazteko. Komunikazioaz gain, aldi berean topaketaren Web orria eguneratuko da; tailerren helburuak eta metodologia ulertzeko beharrezko informazioa eta izena emateko bideak gehituko dira.

<i>Denborazkotakotuna:</i>	3. Fasearen S1 → S2	<i>Kanalak edo xedeak:</i>	• Zabalkundea • Parte-hartzea
<i>Norizuzenduta:</i>	• Publiko adituari • Administrazioa • Herritarrak	<i>Ingurunea:</i>	• Digitala
<i>Entregagaia:</i>	--		
<i>Adierazleak:</i>	• Zenbait komunikabideetan agertzea • Tailerra egin aurretik izen-emateak izatea		

14. ekintza

Diagnosirako parte hartzeko tailerrak

Parte hartzeko tailerrak kanal garrantzitsuena dira herritarrek parte har dezaten. Herritarren multzoari irekita dauden tailerrak dira; hortaz, interesa duen edozein profilak parte har dezake edo ekarpenak egin ditzake parte hartzeko kanal honen bidez.

Bi unetan burutuko dira parte hartzeko tailerrak: 14. eta 18. ekintzetan. Lehenengoak azterketan edo diagnosian ardaztuko dira eta proposamenak jasotzera ere irekiko dira, idazle-taldeak kontuan hartuko dituen LPParen berrikusketa osatuko duten ondorioetara gehitzeko.

Deskribapena:

Honakoa proposatzen da: 3 tailer burutzea, osasun-egoera dela eta, online egingo direnak. Zenbait profilentzat erronka bat izan daitekeela jakinda, ahalegin garrantzitsua egingo da dinamikak erakargarriak eta errazak izan daitezen. Tailerren espazioak antolatzeke lurraldearen errealitateak kontuan hartuko dira, ekitaldi bakoitza ondorengo eremutako bakoitzean ardaztuko da:

- > 01. Tailerra: Vitoria-Gasteizko biztanleak.
- > 02. Tailerra: A1 Ardatzak zeharkatzen dituen udalerriak
- > 03. Tailerra: Dentsitate txikiagoko landa-eremuak

<i>Denborazkotasuna:</i>	3. Fasearen S3 → S4	<i>Kanalak edo xedeak:</i>	• Zabalkundea • Parte-hartzea
<i>Norizuzenduta:</i>	• Guztiei	<i>Ingurunea:</i>	• Erdipresentziala; online
<i>Entregagaia:</i>	• Tailerrak		
<i>Adierazleak:</i>	• Herritarrei irekitako parte hartzeko tailerrak burutzea		

15. ekintza

Parte-hartzearen Memoria Partziala Idaztea

Deskribapena:

Parte-hartzearen memoria partziala idaztea, zeinaren helburua izango den Aurrerapen Dokumentuaren Parte-hartzearen eta Tramitazioaren 3. Fasean unean burututako ekintzak jasotzea. Memoria honetan parte-hartzeari buruzko metodologia eta datuak jasoko dira.

Denborazkotasuna:

3. Fasearen S4

Kanalak
edo
xedeak:

• Dokumentazioa

Nori
zuzenduta:

• Barne-lanari

Ingurunea:


• Barnekoa

Entregagaia:

• Parte-hartzearen Memoria Partziala

Adierazleak:

• Parte-hartzearen Memoria Partziala burutzea



"Mejorando la Madriguera" parte hartzeko prozesuaren esparruan burututako ekintzen eskema. 2017. Iturria: cAnicca.

16. ekintza	Parte hartzeko prozesuaren informazioaren analisisia
-------------	---

Deskribapena: Unera arte parte hartzeko erabili diren kanalen bidez lortutako informazioa (herritarren postontzia, parte hartzeko galdetegi digitalak, gaikako mahai-inguruak eta diagnosi-tailerrak) antolatu eta aztertuko da herritarren ekarpenen lehenengo ondorioak ateratzeko. Informazio hau LPParen Behin-Betiko Dokumentua idatzik duen taldeak balioztatuko du, bahetuko du eta kontuan hartuko du.

<i>Denborazkotasuna:</i>	4. Fasearen S1 → S2	<i>Kanalak edo xedeak:</i>	• Dokumentazioa
<i>Nori zuzenduta:</i>	• Barne-lanari	<i>Ingurunea:</i>	• Barnekoa
<i>Entregagaia:</i>	• Dokumentua parte-hartzeko prozesuaren analisiarekin		
<i>Adierazleak:</i>	• Parte-hartzearen analisi-txostena burutzea • Informazio horren baheketa Behin-Betiko Dokumentuan txertatzea		

17. ekintza	Iritziak erkatzeko tailerren deialdia eta komunikazioa
-------------	--

13. ekintzan bezala, parte hartzeko tailer irekiak ezagutzera emateko eta zabaltzeko komunikazio-kanpaina bat burutuko da. Kanpaina honek 03. ekintzan zehaztutako eta adostutako jarraibideak jarraituko ditu eta hedabide tradizionalen zein sare sozialen bidez burutuko da.

Deskribapena:

COVID-19aren ondoriozko osasun-neurriek eragindako aldaketa etengabeak direla eta, eta segurtasun-neurriak ziurtatzeko eta azken orduko aldaketak saihesteko, tailer-fase hau ere online egitea aurreikusten da. Hau birpentsatu ahalko da burutze-datatik gertuago dagoen une batean. Tailerren dinamikak errazteko eta aspektu teknikoak edo metodologikoak zaindu ahal izateko, oraingoan ere, tailerretan parte hartzeko aurretik izena eman beharko da.

Komunikazio-ekintza hau tailerrak eta bere helburuak hedatzera bideratuko da, baita izen-emateak lortzera; hortaz, aurretik lantaldeak eratuko dira saioen garapena errazteko.

Komunikazioaz gain, aldi berean topaketaren Web orria eguneratuko da; tailerren helburuak eta metodologia ulertzeko beharrezko informazioa eta izena emateko bideak gehituko dira.

Denborazkotasuna:	5. Fasearen S1 → S2	Kanalak edo xedeak:	• Zabalkundea
Nori zuzenduta:	• Publiko adituari • Administrazioari • Herritarrei	Ingurunea:	• Digitala
Entregagaia:	--		
Adierazleak:	• Zenbait komunikabideetan agertzea • Tailerra egin aurretik izen-emateak izatea		

18. ekintza

Iritziak erkatzeko parte-hartze tailerrak

14. ekintzan bezala, parte hartzeko 3 tailer proposatzen dira, oraingoan, LPParen Behin-Betiko Dokumentuaren iritziak erkatzera zuzendutakoak. Herritarren multzoari irekita dauden tailerrak dira; hortaz, interesa duen edozein profil parte hartzea edo ekarpenak egitea erraztuko da parte hartzeko kanal honen bidez.

Deskribapena:

Covid-19ra lotutako osasun-egoera dela eta, tailer erronda hau ere online burutzea aurreikusten da. Edonola ere, erdipresentziala online aukeran zein aurrez aurreko aukeran, dinamikak publiko anitz eta ez teknikoarentzat erakargarriak eta ulergarriak izateko moduan proposatuko dira. Tailerrak antolatzean, 14. ekintzaren tailerretan proposatutako lurralde-egitura mantenduko da, prozesuan zehar berregituraketa bat egitea behartzen duen aspekturen bat agertzen ez bada.

Parte hartzeko saio hauek Behin-Betiko Dokumentua azaltzeko eta bertan aplikatzen diren ondorioak eta emaitzak baloratzeko erabiliko dira. Gainera, prozesua osotasunean ebaluatzeko eta ondorioak ateratzeko erabiliko dira, ezaugarri berdineko prozesutan erabilgarriak izan daitezkeenak. Bereziki garrantzitsua da hori osasun-testuingurua dela eta, zeinean prozesuaren zati bat edo prozesu osoa garatuko den.

<i>Denborazkotasuna:</i>	5. Fasearen S2 → S3	<i>Kanalak edo xedeak:</i>	• Zabalkundea • Parte-hartzea
<i>Nori zuzenduta:</i>	• Publiko adituari • Administrazioari • Herritarrei	<i>Ingurunea:</i>	• Erdipresentziala; online
<i>Entregagaia:</i>	• Tailerrak		
<i>Adierazleak:</i>	• Herritarrei irekitako parte hartzeko tailerrak burutzea		

19. ekintza

Parte-hartzearen Memoria Partziala Idaztea

Deskribapena:

Parte-hartzearen memoria partziala idaztea, zeinaren helburua izango den Behin-Betiko Dokumentuaren Parte-hartzearen eta Tramitazioaren 5. Fasean burututako ekintzak jasotzea. Memoria honetan parte-hartzeari buruzko metodologia eta datuak jasoko dira.

Denborazkotasuna:	5. Fasearen S4 5	Kanalak edo xedeak:	• Dokumentazioa
Lorori zuzenduta:	• Zuzendaritza teknikoari	Ingurunea:	• Barnekoa
Entregagaia:	• Parte-hartzearen Memoria Partziala		
Adierazleak:	• Parte-hartzearen Memoria Partziala burutzea		



Parte hartzeko zenbait prozesuren memoriak.
Iturria: Ezquiaga / cAnicca

20. ekintza

Parte-hartzea amaitzeko jardunaldia

Deskribapena:

Parte hartzeko etapa amaitzeko jardunaldi publikoa egingo da zeinean parte-hartze prozesutik ateratako ondorioak azalduko diren, bere gertaerak laburbilduko diren eta prozesuaren parte-hartzearen berri emango den. Araba Erdialdeko LPPa berrikusteko prozesuan esku hartu duten herritarren sektoreen parte-hartzearen eta elkarlanaren berri emateko eta eskertzeko ekitaldia izango da. Amaiera-jardunaldi hau, egungo osasun-krisialdiaren testuingurua egongo ez balitz, ospakizun bat bezala ikus liteke, zeinean parte hartu duten eragileak batu. Hori xehetasun handiagoz baloratu eta zehaztu ahalko da uneko egoeraren arabera.

Amaiera-jardunaldiaren proposamena da Euskal Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari politikoak zein teknikoak eta idazle-taldearen ordezkariak barne hartzea. Herritar guztiei irekitako jardunaldia izango da, baina batez ere profil politikoei eta teknikoei zuzendutakoa, aurrez aurrekoa edo ez izan daitekeena, uneko osasun-egoeraren arabera. Ekitaldi honen aurretik, prozesuaren gainerako gertaeretan bezala, komunikabide tradizionalen eta hedabide digitalen bidez komunikatu behar da; web orria eta sare sozialak.

<i>Denborazkotasuna:</i>	6. Fasearen S3	<i>Kanalak edo xedeak:</i>	• Zabalkundea • Parte-hartzea
<i>Nori zuzenduta:</i>	• Profil politikoei eta teknikoei • Herritarrei orokorrean	<i>Ingurunea:</i>	• Aurrez aurrekoa; (online)
<i>Entregagaia:</i>	• Itxiera-jardunaldia		
<i>Adierazleak:</i>	• Zenbait komunikabide bertaratzea • Aurretik eta ostean komunikabideetan agertzea		

21. ekintza

Web orria eguneratzea behin-betiko materialekin

Prozesuaren multzoa amaitzeko, web orriaren azkeneko eguneraketa burutuko da, non parte-hartzearen testuinguruan burututako azken ekintzak gehituko diren.

Deskribapena:

Eguneraketa honen helburua da Araba Erdialdeko LPPa berrikusteko prozesuaren erregistroa geratzea, publikoaren eskura gera daitekeena. Plangintza-tresnak idaztean eta berrikustean talde-erabakiak hartzeko garrantziari buruzko material pedagogiko eta sentsibilizazio-material gisa mantenduko den baliabidea izango da. Era berean, beste testuingurutan ere antzeko ezaugarriak dituzten etorkizuneko parte-hartze prozesuentzat gida bat izan daiteke.

<i>Denborazkotakotuna:</i>	6. Fasearen S4	<i>Kanalek edo xedeak:</i>	• Zabalkundea • Herritarrak
<i>Nori zuzenduta:</i>	• Guztiei	<i>Ingurunea:</i>	• Digitala
<i>Entregagaia:</i>	• Web orria eguneratua		
<i>Adierazleak:</i>	• Web orria amaitzea prozesuaren eduki guztiak eguneratuta		

22. ekintza

Parte-hartzearen Azken Memoria idaztea


Azken memoriak barne hartuko ditu parte-hartze prozesuan zehar burututako ekintzen multzoa, parte hartzeko estatistikak eta metodologia, eta prozesuan garatutako ekintza publikak guztien eragina. Dokumentu honek barne hartuko du ere parte-hartze prozesu osoaren ebaluazioa.

Deskribapena:

Azken memoriaren helburua izango da emaitza eta itzulketa izatea prozesuan parte hartu duten pertsona guztientzat, teknikoentzat zein ez teknikoentzat. Hortaz, publiko zein profil desberdinentzat eskuragarria izateko planteatuko da, hizkera ez teknikoa lehenetsiko da edo publiko ez adituarentzat oztopo bat izan litekeen edozein termino argituko da. Dokumentuaren estetika, proiektu osoko irudiarekin bat, zainduko da erakargarria, argia eta y irakurtzeko zein ulertzeko erraza izan dadin.

Denborazkotasuna:	6. Fasearen S4	Kanalak edo xedeak:	• Zabalkundea • Dokumentazioa
Norizuzenduta:	• Guztiei	Ingurunea:	• Digitala
Entregagaia:	• Azken Memoria		
Adierazleak:	• Dokumentu erakargarria eta argia egitea, parte-hartze prozesu publikoa jasotzen duena • Dokumentu hori proiektuaren Web orrian sartzea eta horren bidez zabaltzea.		

Parte-hartze prozesuaren egitura eta ekintzen laburpena



7. Komunikazioaren garrantzia

Garrantzitsua ikusten da komunikaziorako jarraibide batzuk adostea, ekintzetan parte-hartzea sustatu dezan, baita garatzen dagoen prozesuaren herritarren ulermena erraztu dezan ere.

Ahalegin hauek dokumentazio grafikoan gauzatu behar dira herritarrek estrategiak eta horien inplikazioak hobeto uler ditzaten, baita material horiek partekatzeko kanal erabilgarriak nola erabili ere.

Komunikazio digitala

Web: Egungo egoerak aurrez aurreko topaketak edo modu normalizatuan garatutako erakusketak eragozten ditu; beraz, proiektuaren web orriak funtsezko nabarmentasuna hartu du prozesua hedatzeko espazio gisa. Zera proposatzen da: web plataforma bat konfiguratzeko kontsulta-prozesuaren ekintzen edukiak eta ondorioak hedatzeko, herritar ez teknikoak ulertzeko moldatuta dauden formatutan.

Proiektuaren web orria komunikazio-espazio gisa eta proiektuaren aurrerapenen isla gisa erabiliko da. Bertan, fase bakoitzean sortutako dokumentazioa jasoko da, baita azken eguneraketa, web orria a posteriori abian jarraitzeko LPParen berrikuspenaren emailtza zein jarraitutako metodologia kontsultatzeko; Parte-Hartze Programaren beste ataletan komentatu den bezala, kode irekiko filosofiarekin bat egingo du, zeinean etorkizuneko prozesuak aberastu honakoan garatutako esperientziarekin.


Sare sozialak: Web orriarekin batera modu iraunkorrean sare sozialetan prozesura eta parte hartzeko ekitalditara lotutako berrien zabalkundea proposatzen da, herritarren zuzeneko ekarpenekin alderatuta bata-batekotasun handiagoko prozesu batean. Zabalkunde horretarako proiektura lotuta dauden profilak (@irekia eta @lurraldea_eus) erabiltzea proposatzen da, horien helmena profil bereziak sortzean baino askoz eraginkorragoa izango baita. Profil berri horietan ahalegin handia egin beharko baitzen jarraitzaileak lortzeko komunikazio kanpaina hasteko baino lehen.

Irekia plataforma: Bestalde, proiektuaren web orriaren osagai gisa, <https://www.irekia.euskadi.eus/> plataforma erabili ahalko da berri garrantzitsuenak hedatzeko eta, jendeak parte hartzeko fasean, web orrira edo galdetegi digitaletara heltzeko bide gisa.

LPPa idazteko prozesuan parte hartzeko eta hedatzeko gerturatzeko-transmediak zenbait komunikabide erabiltzea dakar berekin, baita herritarrak ahalduntzeko zeharkako espazioak eskaintzea ere. Tresna digitalek lau alderditan garatzen dute partaidetzaren ideia: parte hartzeko tresna gisa, zeinean herritarrek aukera duten iritzia, desirak eta iradokizunak partekatzeko; herritarren pertzepzioa ezagutzeko bide gisa; herritarren bat-bateko ekintzak bideratzeko eta kudeatzeko bide gisa eta proposamenen eta ideien hedatzaile gisa.

Komunikazio tradizionala

Komunikazio digitalarekin batera zenbait une proposatzen dira lan-egiturari, zeinean garrantzitsua den komunikazio hori osatu hedabide tradizionalei (prentsa, irrati, telebista) heltzen dien beste batekin. Horrela prozesuaren une zehatzetan, adibidez parte-hartze publikoaren mugarrietan, komunikazio-kanpainaren irismen handiagoa lortuko da eta biztanleriaren sektore guztietara helduko da.



Profilak Irekia / Instagram eta Twitter sareetan.
Iturria: internet pantaila-irudia



Web orriaren muntaketa posible argigarria, Arabako Errioxako LPParen web orrian oinarritua Iturria: Egileak egina.



Ezquiaga

Arquitectura,
Sociedad y
Territorio S.L.®